

# KATALANEZKO IDAZLEA BANINTZ

JAVIER CERCAS

## 1

Ekitaldi honetan parte hartzeko gonbidapen gutunean, azken batean, Anjel Lertxundik -euskaraz diharduen idazlea bera- bere lekuan jartzeko ahalegina egin nezan eskatzen zidan, hau da, neure burua irudikatzeke hizkuntza minorizatu edo ez-nagusi batean idazten duen norbait gisa; zehazki, "literatur tradizio mugatuko" hizkuntza batean, esaten zuen Lertxundik; galdetu ere galdetzen zidan nola uste nuen eragingo ziola muga horrek literaturaz daukadan ikuspegiari, eta zer iritzi nuen "beren iraungitze-data gertu sentitzen duten literaturek globalizazioaren uretan igerian jarraitu nahi izateaz". Lertxundiren gutuna irakurtzen amaitutakoan, aurrena pentsatu nuen, enkargu hori betetzeko gauza nintzela uste bazuen, nire lankide euskaldunak iritzi onegia zeukala nitaz; hurrena, ia kontrakoa pentsatu nuen: Lertxundi ez zela atzo jaioa, eta, nitaz zeukan iritzia gorabehera, bazekiela nik zailtasun handirik gabe irudika nezakeela neure burua hizkuntza minorizatu bateko idazle gisa.

Azken horretan behintzat, zuzen zebilen Lertxundi. Kontua azalduko badut, neure buruaz hitz egin beharra daukat, horixe baita -Unamunok esango lukeen bezala-

gertuen daukadana. Extremadurako herrixka batean jaio nintzen, baina Katalunian bizi naiz lau urte nituenetik. Katalana naiz, beraz, nahiz eta sekula ez dudan harremana galdu Extremadurarekin (aipatutako herrixka horrekin, batez ere); extremadurarra ere banaiz, beraz, pentsatzen dut; labur esanda: espainiar arrunt ohikoa naiz, beldur naiz. Elebiduna ere banaiz, eta nire bi hizkuntzetako bat minorizatua da: katalana. Kataluniara iritsi nintzenean, frankismo betean, debekatuta zegoen katalanaren erabilpen ofiziala; beraz, eskolan ez zidaten katalanik irakatsi; hala ere, ni ez nintzen, Espainiako beste lekuetako etorkin gehienak bezala, Bartzelonan egokitu, Gironan baizik; eta han, katalanaren erabilpen soziala Bartzelonan baino askoz hedatuago zegoen, beharbada Kataluniako gainerako lekuetan baino hedatuago; hala, laster bihurtu nuen katalana nire “beste” hizkuntza. Unibertsitatean sartu arte, ordea, ezin izan nuen behar bezala ikasi; eta ordura arte ez nuen ulertu -filologia gaztelarra eta katalana batera ikasten ari nintzela- literatura katalana literatura txikia zela, baina aldi berean handia. Txikia kantitatean, handia kalitatean. Halakoa izan zen, batez ere, Erdi Aroan: nahikoa izan bedi esatea Ausiàs March XV. mendeko poetarik handienetako bat dela (edo poeta handienetako bat *tout court*), eta Cervantesen ustez - Joanot Martorell-en *Tirant lo Blanch*-etik asko ikasitakoa bera-, eta ez dut nik kontrakorik esango, eleberri horixe dela “munduko libururik onena”; bestalde, begien bistakoa iruditzen zait XX. mendeko poeta katalan handiak -Josep

Carner, Carles Riba, J.V. Foix, Joan Vinyoli edo Gabriel Ferrater- Europako poeta handi garaikide askoren maila berean daudela. Hori esanik, ordea, egia da, gaztelaniaren, frantsesaren edo ingelesaren literatur tradizioarekin alderaturik, katalanarena mugatua dela. Baina horrek ez du kentzen oso aberatsa izatea.

Dena den, horixe deskubritu nuen unibertsitatean; eta beste zerbait ere bai: inguruan neukan literatur gizarteak katalanez hitz egiten eta idazten zuela. Jakina: Katalunian bazen halaber gaztelaniaz hitz egiten eta idazten zuen literatur gizarte bat, baina nik ez nuen ezagutzen; izan ere, ez nuen ezagutu harik eta, era arriskutsuan, hurbiltzen hasi nintzen arte berrogei urteetara. Adin horren aurretik, nire literatura kideak katalanezko idazleak ziren, poetak batez ere; nire maisu literarioek katalanez idazten zuten, batez ere katalanez argitaratzeagatik ezaguna zen argitaletxe batean kaleratzen nituen neure liburuak eta, prentsan kolaboratzen hasi nintzenean, katalanezko egunkari batean egin nuen. Ia berrogei urte bete arte, beraz, nire inguruko literatur gizartea katalanez mintzo zen; nik ez nuen, noski, gaztelaniaz mintzo zena arbuiatzen: besterik gabe, katalanez mintzo zena nuen hurbilekoena, Gironan hazi, Gironako unibertsitatean irakastea ogibide izan, eta -urte batzuk Bartzelonan eta Estatu Batuetan eman ondoren- berriz Gironan kokatutako idazlea nintzenez gero. Ia berrogei urte bete arte, beraz, katalanezko idazlez inguratutako idazle katalan bat izan nintzen.

Gaztelaniaz idazten nuen, ordea. Horrek esan nahi du paradoxa egoera batean murgilduta bizi nintzela: hizkuntzei begiratuta gutxiengo zen idazle baten egoeran, nahiz eta gehiengoaren hizkuntzan, edo hizkuntza nagusian, idatzi. Hemen, nik uste, ezinbesteko dira bi galdera. Aurrenekoa, zer zela eta, nire ingurunean hizkuntza nagusia katalana baldin bazen, nik gaztelaniaz idazten nuen, eta ez katalanez. Galdera horretarako, ez daukat erantzun labur eta erabatekorik. Esan dezaket gaztelania, Extremadurako nire herrixka hartako hizkuntza ez ezik, nire ama-hizkuntza ere badela, eta nire amaren, aitaren eta arreben hizkuntza, Gironan emandako haurtzaroko eta nerabezaroko lagunen hizkuntza (helduaroko adiskideak izaten jarraitzen dute), bai eta semearekin erabiltzen dudana hizkuntza ere (emaztearekin ez, harekin katalanez hitz egiten dut); esan dezaket, halaber, askotan katalanez idatzi dudana arren, hamabost urte neuzkala literatura idatzi nahian hasi nintzenetik, sekula ez dudala gaztelania ez beste hizkuntza batean idaztea pentsatu; beharbada, idatzi, ez delako buruarekin idazten, tripekin baino, eta tripetatik ateratzen zitzaidan hizkuntza gaztelania zen; imajina dezaket, Kataluniara emigratu beharrean, gurasoek Frantziara edo Britainia Handira emigratu izan balute, eta ni frantsesez edo ingelesez eskolatu, eta frantsesa edo ingelesa bezalako literatur tradizio batean blaitu izan banintz -horien aldean, gaztelaniaren tradizioa oso da mugatua-, nik frantsesez edo ingelesez idatziko nuela. Gauza horiek eta beste

batzuk esan edo imajina ditzaket, baina erantzun labur eta erabateko batetik gertuen, honako hau eskaini dezaket: idazle ganorazko samar batek bere gaiak aukeratzen ez dituen bezalaxe -gaiek hautatzen dute bera-, idazle ganorazko samar batek ez du bere hizkuntza aukeratzen: hizkuntzak aukeratzen du bera.

Hori da lehen galderarako daukadan erantzun behin-behinekoa. Bigarrenari dagokionez, baietz zuetako batzuk aspalditxotik zeuen buruari egin diozuela: egia al da, sarritan adierazten denez, Katalunian bizi eta gaztelaniaz idazten dugun idazleok egoera deserosoan bizi garela, ez esatearren Kataluniako bizitza publikoan nagusi diren nazionalismo eta independentismoaren biktima garela? Galdera horren erantzuna, hori bai, labur eta erabatekoa izan daiteke: erantzuna ezezkoa da. Eta are gehiago: batez ere Madrilen bizi den idazle espainiarraren edo Bartzelonan bizi den idazle katalanaren egoerarekin alderaturik, nire iritziz Katalunian bizi den gaztelaniazko idazlearena pribilejiozkoa da.

Utzidazue berriro ere kontua azaltzen.

Idazle baten egoera ideala apur bat zeiharra da, apur bat periferiakoa, ia bazterrekoa; ez guztiz: apur bat baino ez, ia-ia besterik ez. Horixe da Katalunian bizi eta gaztelaniaz idazten duen idazlearen egoera. Egia da Bartzelona dela Espainiako argitaratze gune nagusia, han kokatuta daudela hizkuntza horretako argitaletxe eta agente indartsuenak; baina Espainiako botere literarioak Madrilen dirau. Egia da, halaber, alderdi horretan gauzak

aldata egin direla apur bat: XX. mendearen hasieran, Baroja edo Azorín ospetsu bihurtzen hasi zirenean, idazle espainiar batentzat pentsaezina zela Madrilen ez beste edonon bizitzea; baita XX. mendearen erdi aldera ere, Cela ospetsu bihurtu eta Sánchez Ferlosio bere lanak argitaratzen hasi zenean, baina beharbada orduan ez hainbeste: azken batean, garai horrexetan hasi zen argitaratzen Gil de Biedma, eta hura ez zen sekula Madrilen bizi izan; gaur egun, aldiz, Bartzelonan gaztelaniazko idazle diren gutxik sentitzen dute, literatur arrazoiengatik, hiriburuaren beharra, nahiz eta, berriro diot, botere literarioak hantxe dirauen. Baina jakineko gauza da, idazle batentzat, boterea oso kontu arriskutsua dela, botere literarioa aurrena. Esan nahi baita, gaztelaniazko idazleek Madrilen bezalaxe, katalanezko idazleek Bartzelonan askoz arrisku gehiago dute, gaztelaniazko idazleek Katalunian baino; hots: garaia baino lehenagoko arrakasta izateko arriskua, idazteari baino literatur bizitzari denbora gehiago eskaintzeko arriskua, botereak idazlea “erosten” saiatzeko erabiltzen dituen balaku, sinekura, lan gutxiko enplegu ondo ordaindu, mauka eta pagotxen pribilegio pozoitsuari men egiteko arriskua, baita politika hutsaren arriskua ere. Esate baterako: gaztelaniazko idazle baten *cursus honorum* delakoan ia ezinbestekoa da Errege Akademiako kide izateko helburua izatea; Kataluniako idazle gaztelaniazkoak lasai asko saihestu dezake betebehari hori: ez Gil de Biedma ez Carlos Barral Akademiako kide izan ez

ziren bezala, ez Juan Marsé ez Eduardo Mendoza ez diren bezala, zentzudun den ia inork ez dauka Akademiako kide izateko desiorik txikiena ere. Baina Kataluniako idazle gaztelaniazkook, denbora puska bat, eta Madrilgo lankide gaztelaniazkoek zein Bartzelonako lankide katalanezkoek mehatxu dituzten ahalegin alferrak eta tentazio hilgarriak saihesteaz gain, haiek ez bezala, eskura dugu literatur tradizio erantsi bat (katalanarena, kualitatiboki bikaina); haiek ez bezala, eskura ditugu geure hizkuntzan irakurle izan daitezkeen pertsona ugari; batzuek eta besteek ez bezala, Kataluniako idazle gaztelaniazkoak ia fabrikatik ateratzen gara lurraldez kanpoko ikuspegia daukagula Kataluniari eta Espainiari buruz: eta idazle batentzat horixe da begirada ezin hobea. Osterantzean, faltsua da independentismoak gaztelaniaz idazteagatik jazartzen gaituela; haren nahia da, idazten dugun hizkuntzan idazten dugula, independentistak izan gaitezen. Ez engainatu zeuen burua: uneotan Katalunian gertatzen ari dena ez da hizkuntza kontua, botere kontua baizik: hizkuntza, politikari independentista gehienen begietara, botere guztia lortzeko tresna bat besterik ez da; izan ere, katalanez idazten duten nire lankide katalan askok uste dutenaren kontrara, ez dago arrazoirik pentsatzeko ezen, Kataluniak independentzia erdiesten badu, biharamunean politikari independentistak katalanaz ahazten hasiko ez direla.

Beraz, berriro diot: Katalunian bizi eta gaztelaniaz idazten dugunok pribilegiatu batzuk gara. Ni neu behintzat

hala sentitzen naiz, susmoa baitut, jaio izan banintz, ez Bartzelonan, baizik Gironan, eta neure bizitzako tarterik handiena han eman ez banu, eta ia berrogei urte bete arte ia guztizko ezjakintasuna izan ez banu Espainiako literatur girotxoaz, nire bizitza, izan dena baino hobea izango zela beharbada -nork jakin-, baina ni, naizena baino idazle kaskarragoa izango nintzela.



Itzul gaitezen gure arazoaren muinera; itzul gaitezen Anjel Lertxundiren galderara: nola bizi izango ote nuke nik hizkuntza minorizatu edo ez-nagusi bateko idazlea izatea; nola, gertuko iraungitze-data izan eta literatur tradizio gutxi-asko mugatuko hizkuntza bateko idazlea izatea? Ez dakit, baina baliteke, katalanezko idazle banintz, nire idazle izaera, katalanez idazten duten lankide askoren modura bizi izatea: ziurtasunik gabe, behin edo behin larritasuna edo alferrikakotasuna sentituz, neure buruari galdetuz zer zentzu ote daukan hain etorkizun zalantzazko hizkuntza batean idazteak, tarteka galzoriko arraza bateko alea sentituz. Baliteke. Eta gauza ziurra da oso kezkatuko nintzatekeela katalanaren oraingo osasunaz eta etorkizunaz. Baina ez dut uste horretako guztiko ezerk bultzatuko ninduenik nazionalismo edo independentismo katalana besarkatzera: lehenik eta behin, nazionalismoa, XIX. mendean nagusiki ideologia progresista bazen ere, XX. mendean ideologia nagusiki atzerakoia bihurtu zelako; bigarrenik, ez dudalako uste Kataluniaren independentziak katalanok ditugun arazoetatik bat bera ere konpontzeko balioko lukeenik; eta hirugarrenik -eta batez ere- zeren, arestian esan bezala, ez baitago arrazoirik pentsatzeko Katalunia independente batean katalanaren egoerak hobera egingo lukeela: izan ere, ez dago batere argi

herrialde baten independentziak hizkuntza baten osasuna bermatzen ote duen, Irlandako kasuak erakutsi bezala: han, bi gerra basatiren ostean independentzia lorturik, politikariak ezer gutxi arduratu ziren, edo ezer ez, gaelikoaz; axola zitzaiena, beraz, boterea zen, ez gaelikoa, zeina boterea hartu ondoren ez baitzen jada boterea lortzeko tresna. Dena dela, katalanezko idazlea banintz, oso haserretuko nintzateke -ez jakin, ordea, orain baino gehiago haserretuko ote nintzen- gaur egun Katalunian eta Espainiako gainerako lurraldeetan nagusi den diskurtso antinazionalista katalanaren aurrean.

Nire ustez, diskurtso okerra da. Eta oker hori da, nagusiki, uste izatea katalana defendatzea eta sustatzea nazionalismo katalana (edo independentismoa) defendatzea eta sustatzea dela, eta katalanaren hedatzea eragozteko nazionalismo edo independentismo katalana eragozteko dela. Hori, faltsua ez ezik, kaltegarria ere bada. Egia da, beste nazionalismo batzuek bezala, nazionalismo katalanak berezko hizkuntza bat izatean oinarritu dituela bere aldarrikapenak, hizkuntza herriagandik datorrela eta eraikuntza nazionalerako tresna bat delako ideia erromantikoan fidaturik; baina egia da, halaber, hizkuntza nazionalisten esku uztea haiei sekulako aukera oparitzea dela, merezi gabeko aukera: nazionalismoa gutxi batzuen ideologia da; hizkuntza, berriz, guztion altxorra, baita ez hitz egiten ez irakurtzen ez dutenena, noizbait hitz egin eta irakurri dezaketelako. Batez ere katalana bezalako hizkuntza bat baldin bada, hain aberatsa eta gaztelaniatik

hain hurbil dagoena. Zuetako asko gogoratuko da *Kixotea*-ren bigarren zatiko pasarte harekin: On Kixote eta Santxo, Bartzelonara doazela, Roque Guinart buru duten bidelapur batzuek geldiarazten dituzte. Bidelapurrek katalanez egiten dute, eta nahiz eta “lau pistolatxoren” mehatxupean zulu hizkuntza bera ere ulertzeko gauza garen, badirudi hurrengo orrialdeetan, Álex Grijelmok dioen bezala, “elebitasun esangabeko egoera baten aurrean gaudela, nor bere hizkuntzan komunikatzen dela imajinatzeraz garamatzen egoera batean”. Ez da harritzekoa. Katalana eta gaztelania hain dira antzekoak non, Cervantesen protagonistek sekula katalanik entzun ez badute ere, bidelapurren jarduna ulertzen baitute; eta ez bakarrik Kixoteak, kapare irakurria bera, baita Santxok ere, zokormazo hutsa izanik ere. Bestela esanik: daitekeena da hilabete ematea katalana entzunez, hitzik ere ulertzera iritsi gabe, baina horretarako sekulako ahalegina egin behar da, edo Santxo gaixoa baino tentelagoa izan. Eta hori horrela izanik, katalana eta gaztelania -gaztelania eta frantsesa edo italiara bezala- azken batean hizkuntza bera baldin badira (hau da, latin gaizki hitz egina), zuetako askok bere kabutan galdetuko du nola litekeen haien arteko elkarbizitza Katalunian etengabeko eztabaidarrarazoa izatea duela zenbait hamarkada; orain ere erantzuna soila da: klase politikoari axola ez zaiolako; gure politikariei, alde batekoak edo bestekoak izan, ez zaie benetan axola, edo bakarrik axola zaie tresna politiko gisa erabili dezaketen neurrian; halako moldez non askoz

baliagarriago baitzaie arazoa bizirik iraunaraztea, konpontzea baino. Azalpen hau, soila izateaz gain, tristea eta gogorra da, baina berrogei urteko eskarmentuak egiazkoa dela erakusten du.

Hala, beraz, katalanezko idazlea banintz, orain - katalan hiztun ohikoa naizela- esaten ditudan gauza berak esango nituzke. Esango nuke katalana defendatzea, arazo politikoa baino lehen, arazo morala dela, errespetu arazoa, eta ez katalan hizkuntzarekiko -abstrakzio bat baita-, baizik eta katalan hiztunekiko, norbanako konkretuak baikara. Esango nuke onartezinak direla nazionalismo espainiarrak xaxatzen dituen zenbait bidegabekeria, LAPAOarena kasu, katalana Aragoitik ezeztatu nahi duena. Eta esango nuke Espainiak katalana sustatu beharko lukeela, gaztelania sustatzen duen kemen berberarekin. Gauza segurua baita hizkuntza bien arteko bizikidetza oso hobetu daitekeela; eta nazionalismo katalanak gehiegikeriak egiten dituela, baina gauza segurua da, halaber, askoz ere gehiago egin daitekeela katalana zabaltzeko eta aitorrarazteko, Kataluniatik kanpo batez ere. Eta hori ez dut bakarrik nik esaten. Francisco Ricok ere, beharbada gure hispanista gorenak, hala dio: ez aspaldi idatzi zuen Estatuak "ez duela jakin izan hizkuntza minorizatuen ezagutza bere egiten eta faboratzen". Eta José Manuel Larak eta Carmen Balcellsek ere hala esan dute, gaztelaniazko argitaratzaile handienak eta literatur agente handienak, hurrenez hurren. Laburbilduz: katalanezko idazlea banintz, arrakastaz desmuntatzen

saiatuko nintzateke gaztelaniazko idazlea izaki arrakastarik gabe desmuntatzen saiatu naizen amarrua; eta ahalegina egingo nuke debate linguistikoa debate politikotik bereizten: katalana erabiltzeko eskubidea defendatzeak ez dakar berez nazionalismo katalana defendatzea, gaztelania erabiltzeko eskubidea defendatzeak nazionalismo espainiarra defendatzea berez ez dakarren bezala; hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea defendatzeak hizkuntza horretako hiztunen zilegizko eskubideak defendatzea baino ez da. Lehenik eta behin, noski, idazleen eskubideak, hizkuntza horretako erabiltzaile pribilegiatuak garenez gero.

Ondo da, ez dira gauzak bere onetik atera behar: hizkuntzak organismo biziak dira, jaio, garatu eta hil egiten direnak, eta gure hizkuntza guztiok ere hil egingo dira. Baina onartu beharra dago gauzak bere onetik ez ateratzea errazagoa dela norberak gaztelania bezain hizkuntza unibertsal batean idazten duenean, katalana edo euskara bezain hizkuntza tokiko batean idazten denean baino; gainera, egia da hizkuntzak hiltzen direna, baina ez dut inolako beharrik ikusten haien heriotza bizkortzeko, edo eragozten ez saiatzeko. Beraz, katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, ahalegina egingo nuke katalanaren (edo euskararen) onura ziurtatzeko, eta haren heriotza eragozteko. Nolanahi ere, gauzak bere onetik ez ateratzen ere saiatuko nintzateke: Anjel Lertxundik bere gonbidapen gutunean zioen bezala, uko egingo nioke pentsatzeari, hiltamuko hizkuntza batean idazten dudanez gero, horrek hiltamuko idazle bihurtzen nauela. Eta, batez ere, baikor konpultsiboa naizenez gero, beharra gidari hartzen saiatuko nintzateke, abantaila bihurtuz hizkuntza minorizatu batean idaztearen makurrak.

Nola egiten ote den hori? Ez dakit, noski, baina saia naiteke imajinatzen.

Azken batean, hizkuntza minorizatu batean idazten duenaren funtsezko arazoa, hizkuntza nagusi batean

idazten duenaren arazo berbera da: kasu bietan, ahalik ondoena idaztea da kontua. Horretarako, ezinbestekoa da tradizioa sakon bereganatzea, idazlearen interesen menpean jarrita inolako eskrupulurik gabe; hau da, beste inork esan ezin dezakeena, oraindik esan gabea, berak esatea. Edozein idazleren tradizioa bikoitza da: alde batetik, bere hizkuntzaren tradizioa, idazlearen oinarrizko tresna; bestetik, tradizio unibertsala, guztiona. Bi tradizio horiek gurdi bateko brida bien antzekoak dira: idazleak bietako bati ondo eusten ez badio, gurdiak ez du aurrera egingo; bi tradizio horiekin eraikitzen du idazleak bere obra lantzeko erabiliko duen tradizio pertsonala. Idazle katalanak (edo euskaldunak) tradizio unibertsala partekatzen du idazle espainiarrarekin (edo ingelesarekin), eta biok dute aukera tradizio horretatik gehien interesatzen zaiena biltzeko; hala ere, idazle katalanak (edo euskaldunak), beren hizkuntzan, aniztasun txikiagoko tradizioa dute, ahulagoa, idazle espainiarrak (edo ingelesak) baino. Hori eragozpen bat da, zeren, tradizio bat zenbat eta indartsuagoa eta aberatsagoa izan, hainbat hobea izango da idazleak bere lanean erabiliko duen tresna; baina ni katalanezko idazlea banintz (edo euskarazkoa), eragozpen hori abantaila bihurtzen saiatuko nintzateke. Literatur iraultza handiak, ia beti, mestizaje operazioak izaten dira, hizkuntza batetik besterako odol-transfusioak; horien bitartez, hizkuntza hartzailea eraberritu egiten da: XVI. mendean, Garcilaso de la Vega irauli egin zuen espainiar literatura -eta beharbada

literatura unibertsala ere bai-, Petrarca-ren hendekasilabo italiarra gaztelaniara egokituta; XVIII. mendean, Lawrence Sterne-k eta Joseph Fielding-ek iraultza eragin zuten literatura ingelesean -eta, zalantzarik gabe, literatura unibertsalean ere bai-, ingelesera egokituz *Kixotea*-n ikasitakoa; XX. mendean, Jorge Luis Borgesek espainolezko literatura irauli zuen -eta beharbada literatura unibertsala ere bai-, espainierara egokituz XIX. mendeko zenbait idazleren lana. Eta horrela beste hainbat. Ingeles hizkuntzak mendebaldeko literatur tradiziozko aberatsena dauka, baina, ni katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, horrexegatik hain zuzen ere pentsatuko nuke, ingelesez, guztia edo ia guztia esanda dagoela; ingelesez errazagoa dela gauzak esatea, katalanez edo euskaraz baino, baina zailagoa, ordea, oraindik esan gabeko gauzak esatea; pentsatuko nuke ingelesak transfusio ugari izan dituela, eta hizkuntza horretan oso zaila dela jada gauza berriak esatea, baina katalanez (edo euskaraz) dena dagoela esateko, mestizaje eta iraultza guztiak egiteko daudela eta, beraz, dena dela posible. Oker ez banago, gutxi gorabehera horretaz ari zen Yorgos Seferis -Anjel Lertxundik gonbidapenean gogoratzen zuenez-, esaten zuelarik hizkuntza ez-nagusi batean idazteak (haren kasuan, greziera modernoan) "aukera ematen digu gure zorioneko hizkuntza hau berrizatzeko"; eta eransten zuen: "Abantailaren bat izan behar genuen, behin eta berriro landu diren hizkuntzen aldean". Arte berri baten aitzindariak, ia beti, ondorengoek izango ez duten



freskotasuna eta ausardia dute, ondorengoek arriskua baitute akademia-manierismoetan zurruntzeko; horrexegatik beragatik, ni katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, ahaleginduko nintzateke pentsatzen literatura bat sakon eta zehatz landu izana, ingelesaren kasuan bezala, ez dela abantaila, eragozpena baizik, eta saiatu egingo nintzateke, katalana (edo euskalduna) bezalako literatura baten freskotasuna eta ausardia ustiatzen, hain indar-husturik ez dauden, birjinagoak eta, beharbada, emankorragoak diren literaturak baitira.

Bai, badakit honek guztiak ilusio hutsaren itxura daukala, *wishful thinking* hutsarena, hain justu ingelesez esatearren; baina, hala izan edo ez, horixe pentsatuko nuke nik: askoz gauza gehiago dagoela esateke katalanez edo euskaraz, ingelesez edo gaztelaniaz baino. Pentsatuko nuke, orobat, nik, katalanezko edo euskarazko idazle gisa, aitzakiarik gabeko abantaila bat daukadala, ingelesezko edo gaztelaniazko idazle baten aldean, hots, eskura daukadala katalanaren edo euskararen tradizioa, ia mundu guztiak kontuan hartzen ez dituen edo, are gehiago, muzin egiten dien tradizioak, eta, nolana ere, eskura errazak ez direnak. Eta pentsatuko nuke, baita ere, gaztelania -batez ere gaztelania, nire hizkuntza izaten jarraituko bailuke, katalanez edo euskaraz idatziko banu ere- ez dudala etsai, aliatu baizik, beharbada nire aliatu onena; pentsatuko nuke harekin bizikidetzan egotea ez dela oztopo, pribilegioa baizik, eta, batez ere Lertxundik aipatzen zituen globalizazioaren uretan, hizkuntza minorizatu batek

luzaroago iraungo duela hizkuntza nagusi bat besarkatzen badu, haren kontra erasoka badabil baino. Pentsatuko nuke, orobat, tokikoa ez dagoela unibertsalaren aurka, eta sarritan gogoratuko nintzateke Tolstoirekin, idatzi baitzuen: “Margotu ezazu zeure herrixka eta mundua margotuko duzu”. Eta beste hainbat gauza ere pentsatuko nuke, nik uste. Pentsatuko ez nukeen gauza bakarra, ordea, burutik ere pasatuko ez litzaidakeena izango litzateke neure hizkuntza minorizatua uztea eta hizkuntza nagusi batean idaztea, tradizio aberatsagoa izatearren, edo iraungitze-data urrutiago daukan hizkuntza batekin lan egiteagatik, edo, besterik gabe, irakurle gehiago izateko asmotan. Ez: neure hizkuntzari eutsiko nioke sendo, azken unera arte jarraituko nuke neure hizkuntzan idazten. Ez nuke egingo, argitu nahi dut, hizkuntza abertzaletasunagatik: azken batean, ez dut uste idazle baten aberria hizkuntza denik; idazle baten aberria lengoaia da. Ez: ez nuke hizkuntzaz aldatuko, askoz kontu oinarrizkoago eta egoistago batengatik; kontrakoa frogatzen ez den bitartean, erraietatik ateratzen zaion hizkuntza duelako idazle batek tresnarik onena ahalik ondoen idazteko, eta esateko daukana esateko, azken batean horixe baita idazle baten eginbehar bakarra. Beraz, katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, gauza asko pentsatuko nuke, salbu eta zer sentitzen ote den gaztelaniazko (edo ingelesezko) idazle bat izanik. Salbu eta, noski, gaztelaniazko (edo ingelesezko) idazle batek eskatuko balit, hizkuntza minorizatu bateko idazlea

naizelarik, neure burua hizkuntza nagusi bateko idazle gisa irudikatzeko. Orduan bai, orduan ahaleginak egingo nituzke, gaurkoan Anjel Lertxundiri erantzuteko ahalegindu naizen bezainbat.

GERARDO MARKULETA ITZULTZAILE